

Zinema Gaur performancea egingo du Esperanza Colladok astelehenean Montehermoson

Gainera, “El cine como experiencia: desbordamientos y expansiones” hitzaldia emango du hurrengo egunean

Gonbidatu berezia izango da Zinema Gaur programaren udaberriko edizioan, datorren astelehenean, hilak 29, eta asteartean, hilak 30: Esperanza Collado artista eta ikerlaria, zeinek bere azken performancea aurkeztu baitu, eta parazinemaz hitz egingo.

Esperanza Collado artista eta ikerlaria da. Haren lana arte plastikoek, performanceko arteek eta zinemak osatutako harremanetan du langunea. Haren liburuak Parazinema: zinemaren materiagabetzea arte praktiketan (“Escritos sobre arte” saria, Fundacion Arte y Derecho, 2011) gogoeta kritikoa eta historikoa eskaintzen du zinemaren “diziplina gabeko” praktikari buruz. Haren performance berria We Only Guarantee the Dinosaurs honela deskribatu dute: “una coreografía cuidadosamente construida [...] a través de la esencia del cine (pre, presente, post) y sus posibilidades. [...] El futuro de un próspero arte fílmico recae sobre esfuerzos como [éste]” (Jodie Mack, La Furia Umana).

Performance-ak aurkeztu berri ditu Images Festival-en, Toronto (2016), Bienal de La Habana-n, Kuba (2015), Art Cinema OFFf-off-en, Palais des Beaux-Arts-en, Brusela (2016), MAC Val-en, Paris (2015), Temple Bar Gallery-n, Dublin (2015), Art Centre Ongoing-en, Tokio (2014), CA2M-n, Madrid (2014), etab., eta banakako erakusketak Things said once La KINO-n (Bartzelona, 2016), La relève The Film Gallery-n (Paris, 2015-16).

Maiatzaren 29an izango da “Things Said Once / Cosas dichas una vez” performancea, 19:30ean. “Things Said Once / Cosas dichas una vez” arte adierazpena eta zinemari egindako laudorioa da, zinemaren historiaren eta oraingo ardura kolektiboaren aitorenpenetik egindakoa. Zineak espazioan, denboran eta komunitatean edo gizartean dituen dimentsioen esperientzia gisako ideiarekin inguruan egituratzen da poema gisa idatzitako testua. “Things Said Once / Cosas dichas una vez” ekintza-sorta bat barne hartzen duen ingurune landu batean aurkezten da.

Hurrengo egunean, maiatzak 30, ordu berean, “El cine como experiencia: desbordamientos y expansiones” hitzaldia emango du. Irudi-mugimenduaren proiektzio aretotik erakusketa geletarainoko migrazio masiboaren lekuko gara gaur egun, halakoa da iraultza digitalak bultzatuta eta artearen materia gabetzearen gertaerak prestatutako desplazamendua. Halako agertokian, hautazkoa izateaz gain, zinema esperientzia historikoen egoerez haratago birdefinitzea beharrezkoa ere bada, ez zinemaren historiaren ikuspuntutik baizik eta hainbat historien bidegurutzetatik: arte eszenikoak, zinema eta arte plastikoak, alegia, irudikapenen historia orokor batetik. Desplazamendu horren gainean lan egitean nahitaezko zaigu kontatzeko marko berriak asmatzea. Nire aukera izan da parazinema kontzeptuaren mendean egitea”, adierazi du Colladok berak.

Sarrera doakoa izango da bi ekitaldietan, lekuak bete arte.

Zinema Gaur lantegiak

Bestalde, gogoratu beharra dago oraindik ere geratzen dela lekurik Espazio de Cine programan. Mainer Oleagak gidatuko du oraingoan, eta zinema fantastikoak beste zinema-genero batzuetan izan duen eragina aztertyuko du bertan..

Zinemazaleak elkartzeko gunea izango da Espacio de Cine programaren edizio berria, zinema fantastikoaren etiketaren pean zinema garaikidean joera bat markatzen duten bideetako batzuk aztertzeko. Film horiek fantasiako ezaugarriak eta elementuak erabiltzen dituzte errealitate anitza, konplexua, antzemanezina, beste alde horretara daramatzaten igarobidez, eta tolesturez beterik.

Ekainaren 7, 14 eta 21ean izango dira saioa, “Los pliegues de la realidad, tendencias fantásticas en el cine contemporáneo” izenburupean, 19:00etatik 22:00era bitartean.

Jarduera doakoa da, baina lekuak mugatuak. Beraz, izena eman beharra dago —tel.: 945 161 830; posta-helbidea: info.montehermoso@vitoria-gasteiz.org—

Esperanza Collado realizará la performance de Zinema Gaur este lunes en Montehermoso

Al día siguiente ofrecerá además la charla “El cine como experiencia: desbordamientos y expansiones”

El próximo lunes 29 y el martes 30 la edición de primavera de Zinema Gaur contará con la presencia de una invitada especial, Esperanza Collado, artista e investigadora, que presentará su último trabajo performativo y nos hablará sobre lo que para ella es el paracinema.

Esperanza Collado es artista-investigadora. Su trabajo se centra en las relaciones posibles entre las artes plásticas, las artes performativas y el cine. Su libro Paracinema: la desmaterialización del cine en las prácticas artísticas (Premio “Escritos sobre arte” Fundación Arte y Derecho 2011) ofrece una reflexión crítica e histórica en torno a una posible práctica “a- disciplinar” del cine. Su reciente performance We Only Guarantee the Dinosaurs ha sido descrita como “una coreografía cuidadosamente construida [...] a través de la esencia del cine (pre, presente, post) y sus posibilidades. [...] El futuro de un próspero arte fílmico recae sobre esfuerzos como [éste]” (Jodie Mack, La Furia Umana).

Recientemente, ha presentado performances en Images Festival, Toronto (2016), Bienal de La Habana, Cuba (2015), Art Cinema OFF-off, Palais des Beaux-Arts, Bruselas (2016), MAC Val, París (2015), Temple Bar Gallery, Dublín (2015), Art Centre Ongoing, Tokio (2014), CA2M, Madrid (2014), etc., y las exposiciones individuales Things Said Once en La KINO (Barcelona, 2016), La relève en The Film Gallery (París, 2015-16).

La Performance “Things Said Once / Cosas dichas una vez”, será el 29 de Mayo a las 19:30. Things Said Once / Cosas dichas una vez es una declaración artística y un elogio al cine desde el reconocimiento de su historia y de la responsabilidad colectiva del presente. Escrito como un poema, el texto se construye alrededor de la idea de cine como experiencia en su dimensión espacial, temporal y comunitaria o social. Things Said Once / Cosas dichas una vez se presenta leído en un entorno elaborado que incluye una serie de acciones.

Al día siguiente, el 30 de mayo a la misma hora, realizará la charla “El cine como experiencia: desbordamientos y expansiones”. “A día de hoy somos testigos de una migración masiva de la imagen-movimiento de la sala de proyección a los espacios de exposición, un desplazamiento impulsado por la revolución digital y preparado por el fenómeno de desmaterialización del arte. En este escenario no sólo se hace posible sino necesario redefinir el cine más allá de sus condiciones de experiencia históricas, es decir, no ya desde el punto de vista de la historia del cine, sino, desde la encrucijada de varias historias: las artes escénicas, el cine y las artes plásticas –es decir, desde una historia general de las representaciones. Es al trabajar sobre este desplazamiento que nos vemos obligadas a inventar nuevos marcos narrativos. Yo he elegido hacerlo bajo el concepto de paracinema” ha dicho sobre la charla, la propia Collado.

La entrada a ambos eventos es libre hasta completar aforo

Talleres Zinema Gaur

Por otra parte, cabe recordar que aún queda alguna plaza libre en Espacio de Cine que en esta ocasión está dirigido por Mainer Oleaga quien analizará con los asistentes al curso la influencia del cine fantástico en otros géneros cinematográficos.

Esta nueva edición de Espacio de Cine, un lugar de encuentro para los amantes del cine, explorará algunos caminos que marcan tendencias en el cine contemporáneo bajo la etiqueta de cine fantástico en diferentes géneros. Películas que usan rasgos y elementos fantásticos para descifrar o desenmascarar una realidad múltiple, compleja, inaprensible, repleta de pliegues, de pasadizos secretos a eso otro.

El espacio, titulado “Los pliegues de la realidad, tendencias fantásticas en el cine contemporáneo” se realizará los días 7, 14, 21 de Junio de 19:00 a 22:00.

La actividad es gratuita pero las plazas son limitadas por lo que hay que inscribirse en tel 945 161 830 o info.montehermoso@vitoria-gasteiz.org